

## CARITASEN KANPAINA

«**Erdu!**»

2020ko IRAILAREN 20a

### URTEAN ZEHARREKO XXV. DOMEKA (A)

#### Liturgia lagungarriak

##### Atarikoak:

- ✚ Lagungarri honeek liturgiarako talde eragilearen esku iztea komeni da.
- ✚ Lagungarriak aurrerapenez prestatu doguz. Ez ahaztu, kanpaina egiten danean Jainkoaren herriaren otoitzean sartzea egoki dan gertaerak izan daitezekela.
- ✚ Ezinbestekoa da liturgia lagungarriekin batera bialtzen doguzan materialak irakurtea kanpainaren senaz jabetzeko.

#### SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: “Egizue hau neure oroigarri” Jesusen agindua berez Eukaristia ospatzeko batu gara. Jainkoak bizia gura dau guztiontzat, emon egiten dan maitasuna dalako. Jainkoa gure bila ari da, dei egiten deusku eta mahastira lan egitera eroan gura gaitu, ebanjelioan entzungo dogunez.

Caritasen kanpainak “zaintzearen kultura” aldarrikatzen dau: geure burua zaindu, gizon eta emakumeak zaindu, hartu-emonak zaindu eta gizarte ingurua zaindu inor kanpoan izten ez dauan eta aniztasunean batuta dagoan alkartetik. Horretarako, ezinbestekoa dogu konprometitzea, gure bizitza eta etorkizuna planeta osoaren eta gizadiaren bizitza eta etorkizunari lotuta dagozala antzematea.

Zutunik, abestuz ekingo deusagu Eukaristiari.

#### SARRERAKO ABESTIA

#### ABADEAREN AGURRA

Ontasun mugagabea dauan Jainko Aitaren maitasuna, zuekin.

## CAMPAÑA DE CÁRITAS

«**iTe invito!**»

20 de SEPTIEMBRE de 2020

### XXV DOMINGO DEL TIEMPO ORDINARIO (A)

#### Subsidios litúrgicos

##### Notas previas:

- ✚ Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✚ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✚ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

#### MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: nos reunimos en esta eucaristía, cumpliendo así el mandato de Jesús: “Haced esto en conmemoración mía”. Dios busca la vida para todos, porque es un amor que se entrega. Dios nos busca, nos llama e invita a trabajar en su viña, como escucharemos en el evangelio.

Este domingo la Campaña de Cáritas nos invita a la “cultura del cuidado”: a cuidarnos, a cuidar de las personas, de las relaciones y del entorno social desde una comunidad unida en la diversidad donde no se excluye a nadie. Para ello necesitamos vincularnos, descubrir que nuestra vida y nuestro futuro están unidas a la vida y al futuro del conjunto del planeta y de la humanidad.

Iniciamos la eucaristía, puestos de pie y cantando unidos.

#### CANTO DE ENTRADA

#### SALUDO DEL PRESIDENTE

El amor de Dios, Padre de infinita bondad, esté con todos vosotros.





## DAMU OTOITZA

Bakez bizi gaitetzala gura dauan Jainko gure Aitaren maitasun eta parkamenean uste osoa jarrita, autortu daiguzan gure pekatuak eta eskatu daigun parkamena.

- Guztiontzat onbera zarana:  
Erruki, Jauna.
- Bihozbera eta errukitsu zarana:  
Kristo, erruki.
- Hasarregatxa eta errukitsu zarana:  
Erruki, Jauna.

## OHARRA 1. IRAKURGAIARI (IS 55, 6-9)

Isaias profeta entzungo dogu lehenengo irakurgaiari. Dei egiten deutso bere herriari Jainkoaren salbamen-egitasmoetara egokitu daiten zuzentasun eta senidetasunaren bideti aurrera egiteko.

## OHARRA 2. IRAKURGAIARI (FLP 1, 20C-24.27A)

Bigarren irakurgaiari, Paulo apostoluak, ebanjelizatzeari begira zer egin badala uste dauan arren, Jaunaren eskuetan jarten dau bere burua.

## EBANJELIO

## JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Jainkoak gura dauana geure egiteko, Berak argitu behar dau gure otoitza eta indarra emon behar deusku. Eskatu daigun apaltasunez.

1. *Eleiza osotzen dogunon alde.* Pertsonen, izadiaren eta hartu-emonen zaintza lehenetsi daigun giza garapena eta garapen jasangarria eragiteko. Eskatu deiogun Jaunari.
2. *Munduko agintarien alde.* Zuzentasuna eta alkartasuna sustatuz, behartuengan arreta jarri eta guztion ona bilatu daien. Eskatu deiogun Jaunari.
3. *Caritasen alde.* Jainkoak bedeinkatu daizala zuzentasun, bake eta bardintasunaren alde diharduenak, euren konpromisoa gauzatzeko laguntza

## ACTO PENITENCIAL

Confiando en el amor y el perdón de Dios nuestro Padre, que quiere que vivamos llenos de paz, reconocemos nuestros pecados y pedimos perdón.

- Tú, siempre bueno con todos:  
Señor, ten piedad.
- Tú, siempre clemente y misericordioso:  
Cristo, ten piedad.
- Tú, lento a la cólera y rico en piedad:  
Señor, ten piedad.

## MONICIÓN a la 1ª LECTURA (IS 55,6-9)

En la primera lectura, escucharemos al profeta Isaías. Invita a su pueblo a ajustarse a los planes de salvación de Dios y así caminar por la senda de la justicia y de la fraternidad.

## MONICIÓN a la 2ª LECTURA (FLP 1,20C-24.27A)

En la segunda lectura, el apóstol Pablo, aunque sigue creyendo que le queda labor por realizar de cara a la evangelización, se pone en manos del Señor.

## EVANGELIO

## ORACIÓN UNIVERSAL

Sabemos que para vivir entregados a lo que Dios quiere, necesitamos que Él mismo inspire nuestra oración y nos dé su fuerza. Pidamos con sencillez.

1. *Eleiza osotzen dogunon alde.* Para que quienes somos miembros de la Iglesia avancemos hacia una comunidad y una sociedad que sitúe en el centro el cuidado de las personas, de la naturaleza y de las relaciones, como elemento clave para generar desarrollo humano y sostenible. Roguemos al Señor.
2. *Munduko agintarien alde.* Para que los gobernantes de todos los pueblos se esfuercen en atender a los pobres y busquen el bien de todas las personas, desde la justicia y la solidaridad. Roguemos al Señor.



izan daiela eta gizakiok eta mundua estu lotuta gagozala ikusarazi deiguela.

Eskatu deiogun Jaunari.

4. *Gure kristau alkarteen alde.* Jesusen indarraz beteta, itxaropenerako eta alkar zaintzeko leku izan daitezcan.

Eskatu deiogun Jaunari.

Emoiguzu, Aita, zeure borondatea beteteko, sendetasunean bizitzeko, Erreinuaren eta bere justiziaren alde lan egiteko behar dogun guztia. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

## **OHARRA DIRUA BATU AURRETIK**

Munduko ezerk ez gaizala axolagabe itzi dinosku Frantzisko aita santuak. Giza familia bakarra gara la sinistu behar dogu. Ez dago bananduko gaituan ez muga ez hesi politiko eta sozialik eta, horrexegaitik, ez dago axolagabekeria orokor bihurtzeko arrazoirik. Eskerririk asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik Caritasen aldeko diru-batzean.

## **JAUNARTZE OSTERAKO HAUSNARKETA**

Frantzisko Aita Santuaren otoitza.

Jaun Bakar eta Hirukoitza,  
maitasun mugagabeko alkarte bikaina,  
danak zutaz hitz egiten deuskun unibertsoaren edertasunean begietsi zaiguzala.

Biztu gure gorespina eta esker ona sortu dozun izaki bakotxarengaitik.

Zeure graziaz, estu lotuta sentitu gaitzezala gauza eta izaki guztiekin.

Maitasunaren Jainkoa,  
lurreko izaki guztienganako zeure maitasunaren tresna lez mundu honetan  
dogun lekua erakutsi eiguzu, bakar bat be ez dozue eta ahazten.

Argi egin agintea eta dirua dabenengan,  
axolagabekeriaren pekatuan jausi ez daiezcan,  
guztien ona bilatu eta behartsuak sustatu daiezcan,  
eta gure bizileku dan mundu hau zaindu daien.

3. *Caritasen alde.* Para que Dios bendiga a quienes colaboran en Cáritas en el servicio de la justicia, la paz y la igualdad y encuentren el apoyo que necesitan en su compromiso y así aprendamos que necesitan en su compromiso y así aprendamos que todo está conectado, lo estamos entre las personas y con el mundo que habitamos. Roguemos al Señor.

4. *Gure kristau alkarteen alde.* Para que nuestras comunidades cristianas, llenas de la fuerza de Jesús, sean un lugar de esperanza y de cuidado mutuo y de quienes sufren. Roguemos al Señor.

Concédenos, Padre, todo aquello que nos ayude a cumplir siempre tu voluntad de vivir fraternalmente, trabajando por el Reino y su justicia. Por Jesucristo, nuestro Señor.

## **MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO**

El papa Francisco nos invita a que nada de este mundo nos resulte indiferente. “Necesitamos fortalecer la conciencia de que somos una sola familia humana. No hay fronteras ni barreras políticas o sociales que nos permitan aislarnos, y por eso mismo tampoco hay espacio para la globalización de la indiferencia”. Gracias por vuestra generosidad en la colecta en favor de Cáritas que ahora realizamos.

## **REFLEXIÓN DESPUÉS DE LA COMUNIÓN**

Oración del Papa Francisco.

Señor Uno y Trino,  
comunidad preciosa de amor infinito,  
enséñanos a contemplarte en la belleza del universo, donde todo nos habla de ti.

Despierta nuestra alabanza y nuestra gratitud por cada ser que has creado.

Danos la gracia de sentirnos íntimamente unidos con todo lo que existe.

Dios de amor,  
muéstranos nuestro lugar en este mundo como instrumentos de tu cariño  
por todos los seres de esta tierra, porque ninguno de ellos está olvidado ante ti.

Ilumina a los dueños del poder y del dinero para que se guarden del pecado de la indiferencia, amen el bien común, promuevan a los débiles, y cuiden este mundo que habitamos.

Behartsuak eta lurra garrasika ari dira:  
 Jauna hartu gaizuz, zeure ahalmen eta argiaz, bizi  
 oro babestu daigun,  
 etorkizun hobea prestatu daigun,  
 zure zuzentasun, bake, maitasun eta edertasunez-  
 ko Erreinua etorri daiten.  
 Gora, Zu, Jauna!  
 Amen.

## ABADEAREN AGURRA (BEDEINKAPENA- REN OSTEAN)

Jaunak dei egin deusku bere mahastira lan egitera  
 joan gaitezana eta mundu honetan dala ikusi dai-  
 gun, geuri laguntzen dihardu eta bere Erreinua  
 guregana iritsi daiten.

Zoaze Jaunaren bakean!

Los pobres y la tierra están clamando:  
 Señor, tómanos a nosotros con tu poder y tu luz,  
 para proteger toda vida,  
 para preparar un futuro mejor, para que venga tu  
 Reino de justicia, de paz, de amor y de hermosura.  
 Alabado seas.  
 Amén.

## DESPEDIDA DEL PRESIDENTE (DESPUES DE LA BENDICIÓN)

El Señor nos ha invitado a trabajar en su viña y a  
 descubrirle presente en medio de la vida, porque  
 Él está acompañando nuestros esfuerzos para que  
 venga a nosotros su Reino.

Podéis ir en paz.

